# LEIHOEN AFASIA

**Alaia Martin Etxebeste**

eztena

**Harremanetarako**:
EZTENA Liburuak
eztena@liburuak.eus
www.eztena.liburuak.eus

**Izenburua:** ........................ Leihoen Afasia
**Egilea:** ................................. Alaia Martin Etxebeste
**Argitaratzailea:** ............... Eztena jaialdia – Zizt! kultur elkartea.
**Ezaugarriak:** .................... Antzerkia. 118 orrialde. 14×20cm.
**Hizkuntza:** ....................... Euskara.
**Argitalpen data:** ..............2019ko Azaroa.
**Lizentzia:** .......................... Creative commons.
**ISBN:** ................................. 978-84-09-16265-9




# Aitaren larrua

2019an ideia zoro samar bat otu zitzaigun Eztena arte eszenikoen jaialdiko lantaldeko kideei: hiru laborategi eszeniko sortzea gidari banarekin, espe-rimentazioa eta sormen prozesuari garrantzia ema-nez batez ere. Bertako emaitzekin osatuko genuen jaialdiko programazio osoa. Espe Lopez, Horman Poster eta Metrokoadroka kolektiboari proposatu zitzaien laborategion gidaritza, eta deialdi irekia eginez aukeratu ziren proiektuetako 25 sortzaileak.
*La Mirada/Begirada*, *Eraikitzen gaituzten hitzak* eta *Aldarri* izan ziren sortutako lanak, hurrenez hurren. Emaitzaren beraren gainetik sormen proze-suok izango zuten garrantziaz jabetuta, Alaia Martin Etxebesteri eskatu genion guztiaren lekuko izan eta sentitutakoekin kronika libre bat egitea. Esku artean duzun liburu hau da horren emaitza: *Leihoen afasia*, esperientzia pasionagarri baten barrutik gertatutakoei emandako begirada sortzailea.

# Biografia

## Alaia Martin Etxebeste

Bertsolaria eta gidoigilea afizioz, ofizioz eta pasioz. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua, *Martin* telesailean eta Sautrelan lanean aritutakoa eta *Izan, egin, eragin* eta *Tximeletak* dokumentalen idazketa lanetan jarduna. Bertsozale Elkarteko Transmisio sailaren hezkuntzako proiektuan bost urtez eragile eta irakasle izandakoa. Gaztezulo aldizkarian, Antxeta eta Oiartzun irratietan eta Zazpika astekarian iritzi emailea. *Zubiak* eta *Barrubiak* irratsaioetako kazetaria.